

The SocialTech Times



Gatazkari Gabeko Teknologia lortzeagatik



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

www.gatazkari gabekoteknologia.org

003. Zb.

→ ZURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA



Emakumeen lan-baldintzak eskalotasunetik hurbil daude.

Kongoko ekialdeko drama humanitarioa

Talde armatuek ustiapen, prozesatze eta 'odolez zikindutako mineralen' salmenta kontrolatzen dute, teknologia berrientzat ezinbestekoak direnak

Kongoko Errepublika Demokratikoa da munduko meatzaritza-eremu nagusietako bat, batik bat herrialdearen ekialdea. Han dago munduko koltanaren erreserben % 80. Mineral hori gabe, ezin izango zatekeen gauzatu teknologia berrien iraultza, eta, bereziki, teknologia mugikorrarena. Mineral horiek gure mugikor, tablet eta ordenagailuen bihotzean gordetzen dira.

Koltanetik tantaloa erauzten da, baina, horrez gain, nabarmenezkoak dira, funtsezko funtzioak dituzten beste hiru mineral: urrea, wolframa eta eztainua. Wolframak ahalbidetzen du mugikorrak bibratzea; tantaloari esker, elektrizitatea biltegitratzen da; eta ez-

5 milioi hildako

Mineral horien erauzketa, prozesatua eta salmenta talde armatuek kontrolatzen dituzte, eta taldeok Kongo infernu okerre bihurtu dute: bost milioi lagun hil dira 1998az geroztik, milioi bat pertsonak


tainua zirkuituak soldatzeko erabiltzen da. Azkenik, urreak kableak estaltzen ditu. Mineral eskasak eta garestiak dira, eta «gatazkan dauden herrialdeetako mineral» edo are gordinago, 'odolez zikindutako mineral' deitzen zaie.

Eremu horretako talde arma-

lekualdatu behar izan dute 2013an soilik eta borbaketa erabili dute gerrako arma gisa. Hain zuzen, urterik txarrenetan, ehun mila emakume borbakatu dituzte urtean, Enough Project erakundearen arabera.

tuek mineral horien ustiaketatik eta legez kanpoko trafikotik lortutako dirua erabiltzen dute arma gehiago erosteko, eta arma horiek bigarren mundu-gerraren amaieratik odoltsuena izaten ari den gatazka betikotzeko baliatzen dituzte.

Aberastasun natural izuga-



Erauzketak gutxieneko segurtasun neurriak kontuan hartu gabe burutzen dira.

Gatazkari Gabeko Teknologia

Egoera tragiko horren aurrean Gatazkari Gabeko Teknologia kanpaina proposatu du ALBOAN GKEak, eta helburutzat du Kongoko ekialdeko indarkeriaren eta gure gailu elektronikoen arteko loturak hausten laguntzea, arreta berezia jarrita

mugikorrean.

Xede hori lortzearen, web plataformak bat garatu du: www.gatazkari gabekoteknologia.org. Gune horretan, kanpaina azaltzen duen bideoa dago, bai eta masakre hori gelditzen laguntzeko moduak ere.

rria izan arren, Kongoko Errepublika Demokratikoa Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizearen azken postuan dago. Mineralak ustiatzeko dinamikak hein handian azaltzen dute paradoxa hori eta milioika pertsonen sufrimendua islatzen dute.

Bestalde, mineralak erauzten dituzten pertsonen modu

artisaunen egiten dute lan, eta baldintza oso zailetan. Ez dute segurtasun-bitartekorik, ezta zehaztutako lan-ordutegirik ere, soldata miserableak dituzte eta haurren eskulana izaten da tarteko. Lan-baldintzak eskalotasunetik hurbil daude, eta ondorio larriak dituzte pertsonen osasunerako eta ingurumenarako.

→ HONDURAS

Meatzaritzaren eta giza eta ingurumen-eskubideen urraketa arteko lotura, fenomeno globala

Meatzaritzaz-ustiaketen eta giza eta ingurumen-eskubideen urraketa arteko harremana ez da Kongoko Errepublika Demokratikoko arazoa bakarrik, eta ez da mugatzen telefono mugikorrek funtzionatzeko beharrezkoak dituzten mineralen salerosketara. Aitzitik, lehengaietan aberatsak diren planetako beste hainbat eskualdetan gertatzen da, Latino-amerikan, Asian nahiz Ozeanian.

Besteak beste, Hondurasen ere eskubideen urraketa eta meatzaritzaz-ustiaketa eskutik doaz. Meatzaritzak ekonomia naziona-

lari ekartzen dizkion diru-sarre-ra gehien urreari eta zilarrari esker lortzen dira. Eta mineralotan eta beste batzuetan herrialde aberatsa izan arren, Meatzaritzaren Lege Orokorren arabera, egiten diren salmenten edo ustiaketen % 1 soilik jasotzen dute udalerriek; hortaz, komunitateak azpigaratu egin dira.

Meatzaritzaren sektoreak beste eskualde batzuek bezalako gatazkaboterea du, nahiz eta beste herrialde latinoamerikar batzuetan baino txikiagoa izan proportzionalki. Larrigarri bat du, ordea: herrial-

deak 2009ko estatu-kolpearen ondoren jasan duen ezegonkortasun politikoa, eta orduraz geroztik bizi izan den indarkeriaren igoera.

Meatzaritzak herri abandonatuak eta txirotuak uzten ditu Hondurasen, baita toxikoei eta hondakinek kutsatutako ibaiak ere. Hain zuzen, horien ondorioz, osasun-arazo larriak bizi dituzte biztanleek, eta askotan, heriotza ere eragiten dute. Gainera, ekosistemak galtzen dira, eta zenbait kasutan, gizakiek lekuz aldatu behar izaten dute. Hondurasen meatzaritzak pertsonen bizitzekin jolas-



Meatzaritzak Hondurasen hustutako herri eta txirotuak uzten ditu.

ten du, eta aldi berean, pertsonen bizitza jokatzeko dute premia delatzen eta baldintza oso prekarioetan lan

egin behar izatean. Baldintzok, gainera, pertsonen osasunari eta bizitzari larriki eragiten diete.

AURKI EZAZU ZURE MUGIKORRAK KONGOKO INDARKERIAREKIN DUEN LOTURA

ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA

ESTREINALDI APARTA
WWW.TECNOLOGIALIBREDECONFLICTO.ORG



EN KANPINHA BAT



LORTZEASATIK

Jesuiten bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.tecnologialibredeconflicto.org

→ TESTIGANTZAK

Aurrera jarraitzeko indarra bilatzea

Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko emakumeen testigantzak

LABWIRA

«Lurrik ez duzunean, edozertan lan egin behar duzu. Ni mineralen zakuak kargatzen hasi nintzen. Lanean bi egunez aritu ondoren, bizkarra hautsita, handituta eta eri izaten duzu; izugarria da. Emakumeok 50 kilo arteko koltanezko zamak garraiatuz sufritzen dugu. Semeetako bat nirekin etortzen da, eta harriak kargatzen laguntzen dit. Batzuetan, ez digute ordaintzen, baina kargatzen jarraitu beharrean daukagu. Ez dago besterik. Batzuk ahaleginen ondorioz gaixo jarri eta hil egiten dira, bestek batzuek beso bat edo hanka bat hausten dute, eta horrela geratzen dira betirako. Zerrendan jartzen dizkizuten harriekin bi kilometro egiteagatik ordaintzen digutenarekin, ez zaigu gosaltzeko ere iristen. Erosten duzun janaria egunean bertan amaitzen da, eta hurrengo egunean, berriro hasi behar. Zortetik izanez gero, egun horretan lana lortzen dut.

Lanik egin ezean, ordea, egun horretan gosez lokartzen gara».

CADDY ADZUBA

Elkartasunaren Asturisko Printzea saria (2014). Kongoko emakumeen eskubideen aldeko aktibista. «Kongoko gerran konturatu ziren emakumeek eraso egitea lagungarri izango zela gerra irabazteko. Ulertu zuten emakumeak daudela bizitza komunitarioaren erdigunean, emakume bakoitzak pertsona asko izan ditzakeelako bere ardurapean. Emakumea, torturatzen badute, ezingo da soroak lantzerantz joan, ezingo du lan egin, eta haren familia osoa arriskuan egongo da. 20 bala erabili ordez, emakume bakar bat hil edo hari sexu-erasoak eginez gero, haren mendeko 20 pertsonari kalte egiten zaio. Emakume bat sexu-indarkeriaren helburu denean eta umiliatuta dagoenean, gizona desorekatu egiten da, eta erraz manipula daiteke. Hain zuzen ere, horixe da gerraren logika».

➔ ALBOAN ETA ERREFUXIATUENTZAKO ZERBITZU JESUITA ERAKUNDEEN PROIEKTUAK



Errefuxiatuek heziketa jazozen dute etorkizun bat izan dezaten.



ALBOAN y JRS-ek Goman, Ipar Kivuko hiriburuan, 150.000 pertsonari laguntzen die.

Kongoko lekualdatuak eta errefuxiatuak laguntzea eta haien eskubideak defendatzea

Kongoko ekialdeko 'odolez zikindutako mineral' gatazkaren ondorioz, bi milio lagun baino gehiagok beraien etxebizitza utzi behar izan dute

Kongoko Errepublikak Demokratikoko ekialdeko krisi humanitario, sozial, politiko eta ekonomiko baten murgildu da, eta urteztar urte areagotu egiten da. Gainera, talde militar eta errebelde armatu askok parte hartzen dute, tokian tokikoak eta eskualdekoak, eremu horretako baliabide naturalak eta mineralak kontrolatzeko helburuarekin.

Segurtasunik ezeko eta ezegonkortasuneko testuinguru horretan, iparraldeko Kivu probintziako (Kongoko ekialdea) herriak lekualdatu egiten dira, indarkeriatik ihes egiteko. 2013ko irailean, kalkulatu zen **bi milioi pertsonak baino gehiagok** utzi zituztela beren

etxeak. Orduz geroztik, horietako askok laguntza humanitariorik gabeko kokagune espontaneoetan irauten dute bizirik; izan ere, ez dute Nazio Batuen agentzien aitorpen eta laguntza ofizialik.

Lekualdatutako pertsona horiek egoera prekarioak eta oso zailak jasaten dituzte: elikadura-gabeziak, diru-sarreraren falta, hezktuzko-falta, askotariko lekualdatzeekin eta jasandako indarkeriarekin lotutako trauma psikologikoak, eta segurtasun-baldintzetan bizitzeko zailtasuna, besteak beste.

ALBOANek, Euskadiko eta Nafarroako Jesuiten GKEak, Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita (JRS) erakundearen esku-hartzea

babesten du Goman, iparraldeko Kivu hiriburuan, premia horiei erantzutearren. Helburu hori lortzeko, **zazpi kanpalekutan multzokatutako 156.000 pertsona** ingururi laguntzen die.

Kokagune horietan, JRS erakundeak lekualdatutako biztanleei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie. Bestek beste, elikaduraren arloko laguntza eta larrialdietako materiala, hala nola tapiakiak eta etxoko eraikitakoak olanak. Horrez gainera, kanpamentuetan hezkuntza ere arduratzen da. Bigarren hezkuntzako eskolak hornitzen ditu, lekualdatutako ikasleak hartzeko. Gainera, gurasoen artean sentsibilizazio-jarduerak egiten

**KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOAN
ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO MODUAK**

- ALBOAN erakundearen kontuetan diru-sarrerak eginez; horretarako, 'Kongo' hitza alpinu behar da diru-sarreraren kontzeptuan.
 - BBVA: ES52 0182 1290 35 0010853001
 - Kubabank: ES06 2095 0000 70 9101227989
- SMS solidarioa: 1,20 euroko dola haintza, 'alboan' hitza bidalita 28014 zenbakira.
- Telefonoa: 902 999 221/alboan@alboan.org
www.gatazkarikigabekotekologia.org

ditu adingabeak eskoletara bidaltzeko eta irakasleak trebatzen ditu. Nabarmentzekoa da, halaber, indarkeriaren eta lekualdatzearen ondorioz traumak jasan dituzten pertsonen laguntza psikosoziala. Bereziki garrantzizkoa da bortxatuak izan diren emakumeei eskai-

nitako arreta psikologikoa. Azkenik, JRS erakundeak kanpamentuetako biztanleen artean alfabetatzea, lanbideak ikastea eta lan-tresnen banaketa sustatzen du, enplegua bilatzen laguntzeko asmoz eta diru-sarrerara iraunkorrak bermatzeko asmoz.

➔ MINERALEN SALEROSKETAREN NAZIOARTEKO ERREGULAZIOA

Gizarte zibilak gatazkak elikatzen ez dituen mineralen salerosketa bermatzeko Europako araudi bat eskatzen du

Europako Parlamentuak duela zenbait hilabete gatazka armatuan dauden eremuetatik datozen mineralen hornikuntza arduratsua bermatzeko araudi baten alde bozkatu zuen. Erabaki horrek **EBoK 890.000 enpresari** eragingo die. Hain zuzen, enpresa horiek «gatazkan dauden herrialdeetako mineralak» deiturikoak erabiltzen dituzte kontsumo-ondasunak ekoizteko, eta ondasun horietako gehienak produktu teknologikoak dira. Hori horrela, hemendik aurrera, mineralen ja-

torriaren berri eman beharko dute. Araudi horrekin, EBk gelditu egin nahi du mineralen legez kanpoko salerosketa, talde armatuaren finantzaketari eta gatazka denboran zehar irauteari laguntzen baitie. Bzoketa horrek garaipen handia irudikatzen du gizarte zibileko erakundeetarako; izan ere, europarlamentari gehienek **giza eskubideak** babestea lehenestea lortu dute **zenbait talderen interes ekonomikoak gainetik**.

Bozketek emaitza itxaropentsua izan ondoren, negoziazioak Europar Batasuneko Kontseiluaren lantalderra igaro dira, non estatu ki-deak ordezkaturta baitauden. Zor-itzarrez, Kontseiluaren jarrerak atzerapausoa ekarri du enpresek «arduratsutza» hartuak izateko bete behar dituzten eskakizunei dagokienez eta gaiak eragingo liekeen enpresen kopuruari dagokienez.

Azken hilotan, negoziazioak amaitzeaz daude. Berriki, hiru aldeko elkarrizketa bati ekin

Zure sinadura

Sinatu gure teknologiaren eta Kongoko gerraren arteko lotura hausteko.
Gatazkarik gabeko teknologia baten alde:
www.gatazkarikgabekoteknologia.org/firma

zaio, etorkizuneko legediari buruzko erabaki-ahalmena duten hiru instantzien artean: Batzordea, Europako Parlamentua eta Europar Batasuneko Kontseilua. Aurreikusten denaren arabera, uda iritsi baino lehen helduko dira legearen amaierako testu-
buruzko akordio batera.

Europako GKE-en koalizioak (ALBOANek parte hartzen du bertan) gobernuai eskatu die beren jarrera birpentsatzeko eta gai horretan lidergoa berrartzeko. Nahitaez bete beharreko araudi bat babesteko eskatzen



Europaren esku.

da, ELGak ezarritako estandarrekin bat etorrira, legeak hartzen dituen mineralen hornikuntza-katean parte hartzen dituen enpresa guztietarako.

→ ALBOAN GKE ETA IKASTOLEN ELKARTEAK

Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren hezkuntza ekimena

Ikasgeletan edukierak lantzeaz gain, ikastetxeetatik haratago, ikasleek ekintzak eta mobilizazioak antolatuko dituzte

ALBOAN GKE eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak hitzarmena sinatu berri dute, Gatazkarik Gabeko Teknologia (GGT) kanpainaren inguruan hezkuntza proposamen bat sortzeko eta ikasleak mobilizatzeko. Hain zuzen ere, DBHko 3. mailako Gizarte Zientzietako testu-liburuetan (euskaraz eta ingelesez) txertatu izan da GGT kanpaina. Era horretan, testu-liburuaren eta kanpainaren webgunearen arteko erlazio dinamikoa sortu da, ikasleek batetik bestera arituko baitira beraien ikasketa-prozesuan.

Ikasgeletan edukierak lantzeaz gain, ikastetxeetatik haratago ekintzak eta mobilizazioarako proposamenak antolatuko dituzte ikasleek, hiritarren inplikazioa bilatuko di-

tuztenak. Besteak beste, eskualde gatazkatsuak iturri dituzten mineralen merkataritza aratuko duen legedi europarra aldatzeko sinaduren bilketak, giza laguntzarako egitasmoak laguntzeko diru bilketak, edota telefono mugikorrek birziklatzeko ekimenak antolatuko dituzte.

GARAPENERAKO HEZKUNTZA

Gatazkarik Gabeko Teknologia ekimena, funtsean, garapenerako hezkuntza proposamena da. Mugikor, tablet eta ordenagailuek Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean dagoen gerrarekin duten lotura ezagutaraztea da bere helburu nagusia. Zentzu horretan, ikastolen parte-hartzea oso lagungarria izango da ekimena hedatu eta gizarteratzeko. Dena den,



Ekimena denon onerako da.

IKASTOLEN PARTEHARTZEA OSO LAGUNGARRIA IZANGO DA EKIMENA HEDATU ETA GIZARTERTATZEKO

GGT ekimenarekin kolaboratzeko interesa duen edozein ikastetxek aukera dauka gure proposamenean parte hartzeko. Horretarako jarri, mesedez, kontaktuan educacion@alboan.org helbidera idatziz edo **902 999 221** telefonora deituz



DBHko 3.mailako Gizarte Zientzietako testu-liburuetan sartzen da kanpaina.

→ LAGUNTZEKO MODUA

Dohaintzak:

Kongoko ekialdeko gatazkak lekualdatutako pertsonen lagundu nahi dietenentzat, ALBOAN GKEk funtsak bideratzeko hainbat bide ireki ditu:

- Telefono honetara deituta: **902 999 221**
- On line dohaintzen bidez, kanpainaren web orritik: www.gatazkarikgabekoteknologia.org edo ALBOANen web orritik: www.alboan.org
- ALBOAN erakundearen kontuetan diru-sarrerak eginez; horretarako, 'Kongo' hitza aipatu behar dira diru-sarreraren kontzeptuan".
-BBVA: ES52 0182 1290 35 0010853001
-Kutxabank: ES06 2095 0000 70 9101227989
- SMS solidarioa. 1,20 euroko dohaintza, 'alboan' hitza bidaltuta 28014 zenbakira



● Jasotako ekarpen bakoitzak oso

ballotsua da Kongoko ekialdeko lekualdatuentzat. Hona hemen jasotako laguntzekin egin daitekeenaren zenbait adibide:

- 10 euro baino gutxiagoren truke, eskola kit bat erosten lagundu daiteke. Honako hau hartzen du baitan: telazko motxila bat (JRS erakundeak laguntzen dituen emakume lekualdatuek erabiltzen), eta haren baitan, koadernoak, boligrafoak, arkatza, borragoma, etab.
- 30 euro baino gutxiagoren truke, elikadura-anoa eros daiteke, oinarrizko elikagaiez osatua: olio, arroza, azukrea, esnea; hartara, familia batentzako beharrezkoa den kalorien ahoartzea bermatzen da.
- 60 eurorekin, sexu-indarkeria jasan duen emakume baten mediku-tratamendua ordaindu daiteke.

Sinatu legez kanpoko meatzaritzarekin amaitzeko:
www.gatazkarikgabekoteknologia.org/firma

BIRZIKLATU ZURE MUGIKORRA. 'KONGOREN ALDEKO MUGIKORRAK' EKIMENA

Telefono mugikorrak birziklatzea eta berrerabiltzea Kongoko ekialdeko mineralak erazteko premia murrizten laguntzeko aukera bat da. Telefono mugikor baten osagaien % 90 arte birzikla daitezke.

Birziklatze horrek sortutako irabazi ekonomikoak Kongoko ekialdeko errefuxiatuei eta lekualdatuei laguntzeko proiektuetara bideratzen dira.

Proposamen horretan lagundu nahi duen pertsona orok honela lagundu dezake: erabiltzen ez duen mugikorra ALBOANen egoitzetako edo Euskalteketan denetako edukiontzietan utzi, edo bilketa-puntu bat jartzeko edukiontzia bat eskatu: moviles@alboan.org.



<http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org/mugikorrak-kongoren-alde/>
SMS SOLIDARIOA. 1,20 euroko dohaintza, 'alboan' hitza bidaltuta 28014 zenbakira.
QR kodea, Merkataritza Askeko Hitzarmenaren web orrira bideratzen duena.